

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Gure ideia eta balio proposamena esan eta gero gure merkatuaren segmentazioa esango dizuegu, hau da, gure bezeroak identifikatuko ditugu, atal honetan bezeroak garrantzitsuenak baitira.

Hasieran esan dugunez gure ideia da zakarrontziak betetzen direnez zakarrontzi bakoitzean birrintzaile bat edo holako gauzak jartzea, sartzen den materiala txikitzeko eta horrela denbora eta lana aurrezteko.

Hau esanda hasiera goaz merkatuaren segmentazioarekin, gure proiektua birziklatzen duten enpresentzako eta Sasieta enpresarentzako zuzenduta dago.



Sasieta enpresa eta birziklatzen duten enpresak guk botatzen dugun zaborra jasotzen dute eta eramaten dute eta guk lana eta denbora aurreztuko diegu. Adibidez Sasieta zenbait egunetan etortzen da zakarrontziak husteko beteta dauden bakoitzean eta hori ordez gure proiektuari esker egun gutxiago etorri beharko dira. Adibidez astean hiru egunetan etorri ordez astean behin etorri ahalko dira.